


Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko abuztuak 13 / III. urtea / 88. zenbakia



Amen eta Omen



AINGERU EPALTZA

INEMeko bulegotik hirugarren aldiz esku hutsik atera zen egunean gogoratu zitzaion. Ikusi ere, lehenago ikusiak zituen bidean, makulu luzea eskuan eta bularraldean maskorra dilindan zeramaitela. Telebistak, egunkariak eta telefono kabine-tako txartelek ez zuten hondaraldian bertzerik aipatzen Finisterre urruna, mendeal muturra, helmuga zuen bidaia baizik. Bertalde ere, ez zuen inguruan lagun edo ezagunik falta, abentura edo indulgentzia nahiak akuilatuta, hara abiatua zenik bizkarra motxilaz zamaturik. Alabaina, gogoratu, INEMeko funtzionariak beretako fitsik ez zela hirugarrenez adierazi arte ez zitzaion gogoratu.

Arratsalde horretan berean, botz urteko lan eta izerdien ordain emana zioten titulu flamantea erre eta herrira joateko autobusean sartu zen. Etxera ailegaturik, ez zuen uste lan izanen zuenik anaiak gobentzitzen. Nagusiak, etxeko gelditu zenak, esne-behiak hil berriak zituen lau sosen truke, Bruselasko nagusien aginduei men eginez. Gazteenari, berriz, bi hilabete lehenago bukatua zitzaion Seat-en kontratua eta ez zuen luzapenik erdietsi, UGTkoa ez izan eta. Ikasia baitzen —horrek anarteraino deus gutti balio bazion ere—, gure herriko historia aipatu zuen, tradizioetara itzuli eta arbasoen manerak berreskuratu beharra argudiatu. Iragan mendeetako adibideak ere ekarri zituen harira, Aymeric Picaud eta bertze. Mintzaldia akitu orduko, eskupetak gerizondoko armategi zaharretik kanpora zeuden. Berak, aita zenarena hautatu zuen, 0,8 bat, eibartarra. Anaia zaharrena postak banatu zituen, basur-detara eraman ohi direnetarik.

Zinta horiz eta txartel ikusgarri seinalezaturik baitzegoen, tokirik egokiena bilatzen baizik ez ziren lanpetu. Mezkitutz eta Erroko mendateen arteko bidezoko bat hautatu zuten, ote-abarrek gerizaturia eta errepide nagusitik urrunexko. Hogei minutu gabe ikusi zituzten lehen erromesak. Trankil eta kontent heldu ziren, kantari Donejakue apostolu haundiari.

Pasa den mendearen erdialden sortu ziren gehienak, egiteko txokolatea hartzeko ohitura zabaldu zenean, errito bihurtu zenean, eta Iruñeko ermandaterik handiena ere izan ziren. Txokolate eta kandegileak, biak batera, «bakar batekin ez baitzegoen bizitzerik». Loditasunari buruzko kanpainak eta kanpoko marken eraginaren aurrean —eta, zergatik ez esan, ohituen aldaketak zirela eta— banan banan desagertu ziren, multinazionalei eta soberazko kilo horiei jendeak dien beldurri lehia galduta.

Seminario, Manterola, aspaldian; duela gutxi Donezar, Pedro Mayo edo Orbea —Oviedora erbesteratuta—... saltzen zituzten kandelen gisa akitu ziren, zalapartarik gabe. Egun soilik Jesus Subizak, Amaia kaleko bere tailerrean, txokolatearen usainea jarraitzen du tinko, «hil arte». Batek baino gehiagok ahaztuko lituzke —gustura ahaztu— munduko dieta guztiak beraiekin solasean unetxo bat egon ondoren. Eta denek atxikita duten txokolatearen usaina aditu ondoren...



Txokolatearen usainean

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Xabier Soubeleten margo erakusketa izanen da ikusgai Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Abuztuaren 6tik 29ra izanen da zabalik, ohizko ordutegiarekin.

Gaur egungo pintore tafallartarrei buruzko erakusketa dago paratuta Garces de Los Fayos Tafallako Kultur Patronatoaren Erakusketa Aretoan. Hilaren 5tik 22ra izanen da ikusgai, eta Miguel Angel Irisarri, Ana Mari Sagardai edo Xabier Doxanbaratzen lanak egonen dira aukeran.

Erloju Zaharrei buruzko erakusketa bitxia dago paratuta Zangozako Udaletxean, eta hil osoa bitartean.

ZINEMA



Eduardo Manostijeras izeneko filme eskeiniko dute heldu den asteazkenean, hilak 18, Irurtzunen, Ortziaeren azpian prestatu den egitarauaren barruan.

Hook filmea ikusteko aukera izanen da bihar, larunbata, Nabaskoitzen, gaueko 10etatik aurrera, eta Nafarroako Gobernuak herri txikitari antolatu duen egitarauaren barruan. Pelikula bera Untzuen ikusi ahal izango dute igandean, hilak 15, eta ordu berean.

ANTZERKIA



Dagoll Dagom talde kataluniarak 'Historietas' izeneko bere azken lana aurkeztuko du bihar eta etzi Erriberrin, Nafarroako Jaialdien egitarauaren barruan. Emanaldia gaueko 10etatik aurrera izanen da.

El Pais de Hamerlin izeneko lana taularatuko du bihar larunbata, Untzuen, Bajo la Arena taldeak, arratsaldeko 19.30etatik aurrera. Emanaldi hau Nafarroako Gobernuak uda osorako antolatu duen egitarauaren barruan dago. Antzezlan bera Nabaskoitzen izanen da ikusgai etzi, igandea, ordu berean.

MUSIKA



Stupendams taldeak kontzertua eskeiniko du heldu den asteartea, abuztuak 18, Zangozan, Nafarroako Jaialdien egitarauaren barruan. Kontzertua gaueko 10etatik aurrera izanen da, Kultur Etxeko patioan.

Nahi ta nahiez taldeak Irurtzungo igeritokitian eskeiniko du kontzertua gaur bertan, ostirala, gaueko 10etatik aurrera.

Bezkitz



eremua babestua. 265 Hektareekin, oso ongi babestuta dago, eta Eureleko Kartaren arauak betetzen ditu. Hau da, teoriaraz, erreserba natural librea da, eta bertan biltzen dira fauna eta begetazioa babesteko konpromezua hartu duten lur sailen jabeak. Espezie franko biltzen dira bertan, baina aberastasun handiena txorien mota ugarietan aurki daiteke. Bertan biltzen ohi dira, ehiztariak eragozten ez badute, behintzat, Nafarroako harrapakari kopuru altuenetakoak.

Baselizatik aurrera, Bezkitzera daramakigun bidea hartu behar dugu, herrira heldu arte. Hortik Olietara daraman errepidera heldu beharko dugu berriro ere, eta hortik behera, zuhaitzik gabeko mendien artean —garia eta garagarra nagusi dira inguruotan—, eta Cidacose-ra ugaldetamatur ura daraman errekatxoaren ondoan, hasierako punturaino helduko gara.

ASTEKO PERTSONAIAK



Patxi Eugi
Pilotaria



Rosario Flores
Abeslaria



Alberto Aguila
Futbolaria

Agoizko alkateak herriko Ohorezko Zapia jarri zion Patxi Eugi pilotariari joan den larunbatean udaletxean, bestak iragartzen dituen suziria jaurtiki baino ordu erdi lehenago. Ohorezko Zapia, herriko alkatea Francisco Javier Beaumontek azaldu zuenez, «urtean zehar herriaren alde lan egin dutenei ematen zaie». Patxi Eugi pozik agertu zen zapiarekin eta herriko biztanle guztiei eskaini zien, beraien laguntza eta bere lana ezagutu izana eskertzeko asmoz. Jai giroa nagusi izanda ere, eta nahiz eta Eugik berak lagunarteko afariak faltako ez direla aitortu, sasoi onean dagoela argi utzi zuen eta Herri-Krosean bigarren postua lortu zuen. Bere atzetik Koldo Zia bere entrenatzailea geratu zen.

Rosario Floresek joan den larunbatean Erriberrin bere musika eskaini zien bertara hurbildu ziren 1.500 ikusleei. Nafarroako Jaialdien izarra izan den abeslaria, eta Jaialdien aretoa bete-betea agertu zen. Flamenko, runba, soul eta beste hainbat estilo ezberdin nahastuz, bere ahotza eta dantzarekin han zeuden guztiak txundituz, arrakasta izugarria lortu zuen Rosariok. Bere lehen diskoa kalean duela —'De ley'—, ez zuen espero Nafarroan izandako harrera ona. Bere ustez, «garrantzitsua beti egiazkoa izatea da, barruan dagoen energia adieraziz». Bere musikak erantzun ezin hobe jaso du jendearen aldetik eta, berak erraten duenez, «etxean bizi izandako flamenko eta kalean entzundako musikaren arteko nahasketaren emaitza da».

Alberto Aguila jakin berri duenez, Pedro Mari Zabalza Osasuna taldeko entrenatzaileak ez du ziurrenik bere jokalarien artean gordeko. Talde nafarra akordio batera ailegatu da Lleida taldearekin eta Alberto Aguila onartzen badu beraien artean jokatu du denboraldi honetan. Zabalzak Aguilari jakinarazi zionez, Osasunak bi jokalaririk kontratatu nahi ditu, eta oso aukera gutxi izango ditu aurtengo taldean jokatzeko. Halaber, beste talderen batek kontratatu nahiko balu ez lukeela inongo eragozpenik jarriko azaldu zion. Alberto Aguila ez da pozik agertu, egoera honen berri aurreneboraldia jadanik hasita zegoenean eman baitiote. Aurrera jarraitzeko prest dagoela adierazi badu ere, Irufetik «triste» alde egingo duela aitortu du.

AHAZTU GABE!

MIKEL LABOA, Xaximiku eta Sorotan Belez ikusteko aukera izanen da bihar larunbata, hilak 14, Goizuetako festetan, Argia astekariak antolatu duen jaialdi ederraren barruan. Gazte Asanblada, Tabenak, Umore Ona elkarteak eta Udaren laguntzarekin, euskal musikaren iragana eta etorkizuna izanen dira gaueko 10.30etatik aurrera bertan. Eta kontzertuak merezi du benetan, ez baita erruz izaten Txerokee ikusteko parada Nafarroan. Sorotan Belez hondarribitarrak, bestalde, aurtengo errebelazioa izan dira, eta, zuzenean eskeintzen duten soinuak ez dauka zertan enbidiatu beharrik diskoarena.

Ez da izango, baina, erreza aukeratzea asteburu honetan, festak nonnahi Nafarroan osoan, jaialdiak ere franko baitira antolatuak. Esate baterako, bat aipatzearren, Su ta Gar taldeak joko du Arantzian bihar ere, gaueko 11.30etatik aurrera, eta Lin Ton Taun taldearekin batera. Sorotan Belez aurtengoak baldin badira, eibartarrak iazko sentsazioa izan ziren, eta ikusgarria izanen da bertasolaritzarako hain atxikimendu handia duen herrian entzutea. Mereziko du, dudarik ez egin.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, **30 seme-alaba Nafarroako**. Elkarrizketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

AINGERU Epaltza idazle iruindarra izanen da gonbidaturik heldu den osteguneko Euskalerrira Irratian, goizeko 10etatik aurrera burutzen den magazinean. 'Ur Uherrak' nobela kale-ratu berria, hortaz eta hartaz mintzatuko da Nafarkaria honetan bertan hilean behin lehen orrialdeko zutabea kolaboratzen duen idazlea.



HERRIZ BERRI



Lakuntza

Pertza, inoiz baino astunagoa

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Lakuntzako Pertza elkarteak 200 kilo odolki prestatu ditu heldu den igandean ospatuko den izen bereko festarako. Beste urtetan baino gehiago, mendien igoeran eskas gelditzen zirela eta antolatzaileek odolki kiloak gehitzea erabaki dute, urtetik urtera gora egiten duen partaideen gosea behar bezala asetzeko.

Beste urtebetez —eta denek aspaldian utzi zioten kontatzeari—, San Migelera daraman maldetatik goiti abiatuko dira lakuntzarrek igandean, goizeko seietan, astoaren bide-zorroak bete odolki. Berarekin batera, hainbat ibiltari animoso, bidean egiten den hamaiketakoak —zortzietakoa erran beharko— merezi baitu ahalegina, Pertza erori ze-

nekora ailegatuta, atsedena hartu eta odolkiak jango dituzte astoaren laguntzaileek, hor erori baitzen, erori ere, aspaldiko asto zorioneko hura.

Herrian bertakoek kontatzen dutenez odolkiak zeramatzen astoak estropezu egin zuen bidean, eta pertza, zirinbuluka, Uharte Arakileraino heldu zen, eta bertako errotariaren burua jo zuen.

Goizeko bederatzieta aterako da jubilatuta eta ezinduendako autobusa, eta hamaiketan meza ospatuko da San Migelen. Ondoren, duela urte askotxo Oñati-biak asmatutako dantzak eskainiko ditu Biltoki elkarteak dantza taldeak, eta odolkiak banatuko dira lakuntzar eta ez lakuntzar guztien artean. Hain zuzen ere, antolatzaileek omenaldia egin nahi zioten aurtan dantzen

sortzaileari, baina garaia oso aproposa ez delakoan, aurreragorako utzi dute egin asmo zuten omenaldia.

Ordu bietan Guardetxera jaitziko dira bildutako guztiak, bazkaltzera, eta bazkalondorako akordeoiak izango dira bertan. Arratsaldeko zazpiak aldera autobusak herriko bidea hartuko du berriro ere —oinez heldutakoak ere abiatuak izango dira ordu-rako—, eta festak herrian bertan jarraituko du, 'Sustraiak' musika taldearen berbenarekin.

Egun hau lakuntzarrendako egun handia da, eta bertakoak ezezik, kanpora bizitzera joandakoak ere hurbiltzen dira Sakana herriara. Antolakuntza guztia Lakuntzako Pertza elkartearen esku dago, tabernen laguntzarekin noski. Lakuntzarren topaleku izango da festa.

Iruñea

San Lorentzoko jaietan kiliki berriak

P. U. / IRUÑEA

San Lorentzo Iruñeko Parte Zaharreko kaleko jaiak umore ezin hobeaz ospatu ziren joan den asteartean, eta kiliki berrien estrenaldia izan zen aipagarriena. Ana Urtaunen eta Javier Ibarrola alkatearen, Freddy Larreta musikariaren eta Sole Markina bizilagunaren irudiek —ezin hobeki eginak, portzierto—, harridura sortu zuten, eta baten baten haserre ere, Solek ez baitzuen baimenik eman ateratzeko. Nolanahi ere, eguerdian hasitako festak bere ibildideari jarraitu zion, eta gau aldeko afariak kale osoa bete zuen alderik alde. Jarauta 69 orkestrak alaitu zituen bertarututakoak.



LEKUNBERRIko Udalak eta Larraungo kontzejuek ezetsi egin dute Goardia Zibilak herrian eraiki nahi duen koartel berria, eta bertako polizi lanak Foru-zaingoak bete ditzala eskatu. Bi erakunde hauen arabera, koartel berriak ondorio kaskarrak ekarriko lituzke, «bai sozio-ekonomikoak bai hizkuntzaren eta kulturaren berreskurapenaren prozesuan». Goardia Zibila Irurtzun-Andoain autobidearen kontra ETAk mehatxu egin zuenetik dagoela bertan eta nahiz eta frankotan bertako erakundeek hortik alde egiteko eskaerak egin, Goardia Zibilak bertan jarraituko duela berretsi zuen duela gutxi Ruiz de Alegria Espainiako Gobernu-ko ordezkariak berak.

TAFALLAko jotzen txapelketa arrakasta osoz burutu zen joan den larunbatean Ereta frontoian, eta az bezala, Sota ahizpak atera ziren garaile. Irabazleak honako hauek izan dira: Sota ahizpak eta Elena Sota helduen sailean; Arantxa Diez eta Ainhoa Gonzalez bikotea eta Laura Lakuntza jubehiletan, eta Marta Castillejo eta Diego Belzunegi bikotea eta Jose Antonio Perez haurren sailean.



TUTERAko Udaleko gobernu batzordeak bere «ondoeza» adierazi berri du Nafarroako Gobernuak bertan ospatzen zen Nazioarteko Dantza Jaialdia Lodosara eramatea erabaki duelako. Hezkuntza eta Kultura Sailak horrela erabakita, ekintza artistiko eta kulturaletarako dirulaguntzak Lodosari eman zitzaizkion ekitaldi hau egiteko eta ez Tuterari, orain arte egin den gisan. Bestalde, eta honek goiko tartean egon beharko luke, Perez Sola alkateak heldu den irailean Rafael Moneo arkitektoari egingo zaion omenaldian parte hartzeko gonbitea egin die herritar guztiei.

FUSTIÑANAko festak zirela eta egindako entzietan bost betizuk alde egin zuten ohizko ibilbidetik, babeslekua egiten zuten hesietatik salto egin ondoren. Ez zuten inor harrapatu, baina une larriak sortu zituzten baita artzainen artean ere, ernegaturik baitzebiltzan. Lehendabizikoa goizeko hamaikak aldera harrapatu zuten, ordu batean beste bi, eta laurak aldera laugarrena. Iluntzeaz zegoela atera ziren azken betizuen bila, Fustiñana eta Kabanillas bitartean zegoen.

FESTAZ FESTA

Faltzes

Abuztuak 14, larunbata:

12.00 Udaletxe plazan txupinazoa. Jarraian Gaiteroak, Musika Banda, erraldoi eta kilikiak. Horren ostean hamaiketakoa.

20.45 Salbea

23.00 Su artifizialak.

24.30 Tripoli orkestrarekin dantzaldia.

02.00 Larraindantza gaiteroekin. Jarraian Tripoli orkestrarekin dantzaldia.

Abuztuak 15, igandea:

07.30 Entzietarra kale Arrabaletik Jesus Asin ganadutegiko behiekin. Jarraian salda beroa.

08.00 Musika Banda eta Gaiteroak Piloneko aldaparentz abiatuko dira.

08.45 Ama Birjina piloneko bere tokian jarriko dute. Jarraian ohizko kanta abestuko diote.

09.00 Piloneko entzietarra.

11.00 Prozesioa eta meza.

13.00 Makaia dantza taldea Foru plazan 'Faltzesko dantzak' dantzatzuko ditu.

13.30 Agrupación musical borjanaren kontzertua.

19.00 Entzietarra.

20.15 Acuarium musika taldearekin kontzertua.

22.30 Acuarium taldearekin dantzaldia.

Burlata

Abuztuak 14, larunbata:

12.00 Txupinazoa Udaletxe plazan. Jarraian Musika Banda, Txaranga, gaitero, txistulari eta erraldoi eta kilikien ateraldia. Jarraian San Juan Bautista plazan hamaiketakoa.

12.30 Udaletxean bideo, argazkilaritza, kartel eta idazlan lehiaketetako sariak banatuko dira.

18.30 'Salbearen igoera' Udaletxe plazatik.

19.00 Salbea.

20.00 Burlatako flamenko taldearen emanaldia Hilarion Eslava ikastetxean.

20.00 Txistulari eta gaiteroekin dantzaldia Eliza plazan.

20.30 Samurái orkestrarekin dantzaldia.



dia.

22.30 Piroteknia bonbardaketa.

22.45 Zezensuzkoa.

23.30 Zinema Floirac plazan: 'Esta casa es una ruina'.

00.30 Samurái orkestrarekin dantzaldia.

Abuztuak 15, igandea:

07.00 Aurorak.

09.00 Dianak.

10.00 Floirac hiri-aizpako ordezkariak harrera Udaletxean.

11.00 Meza.

12.30 Txaranga herriko karriketan barna abiatuko dira.

13.00 Betizuak.

16.30 Awka musika talde hegoamerikararen kontzertua.

18.30 Julian Retegi pilota txapelketaren finala Askatasuna pilotalekuan.

20.00 Txistulari Elkartearen kontzertua Udal Parkean.

20.30 Basakabi orkestrarekin dantzaldia.

22.30 Zezensuzkoa.

23.00 Su artifizialak.

23.30 Zinema Floirac plazan: 'El jovencito Frankenstein'.

00.30 Basakabi orkestrarekin dantzaldia.

Leitza

Abuztuak 13, ostirala:

07.30 Dianak Artadi txaranga eta txistulariekin.

09.30 Entzietarra eta zezenak plazan.

11.30 Musika Musika Bandaren kontzertua.

17.30 Zezenak plazan.

19.00 Haurrendako gaztelu puzgarriak eta Karts-ak herriko eskoletan.

19.30 Profesional pilota partidua Amazabal pilotalekuan.

20.00 Trakets taldearekin dantzaldia.

24.00 Trakets taldearekin dantzaldia.

Abuztuak 14, larunbata

07.30 Dianak gaiteroekin.

09.30 Entzietarra eta zezenak plazan.

11.00 Bertsolariak herriko plazan: Lizaso, Murua, Egaña, Sarasua, Mañu-korta.

12.30 Kalderetea plazan.

17.00 Zezenak plazan.

18.30 Iruñeko erraldoiak gaiteroekin ibiliko dira.

20.00 Akelarre taldea.

24.00 Akelarre taldea.

Abuztuak 15, igandea:

07.30 Dianak txistulari eta txistulariekin.

09.30 Entzietarra eta zezenak plazan.

11.00 Herri kirolak, aizkolariak: Mingegia, Larretxea, Nazabal, Arrospide, Olasagasti, Jaunarena.

11.30 Elizondo-Tolosa futbol partidua.

14.30 Arrurerako bazkideen bazkaria.

16.30 'Tiro al plato' saioaren jarraipena.

18.00 Ezkonduen entzietarra eta zezenak.

19.00 Ezkonduen ingurutxo.

20.00 Agirren taldearekin dantzaldia.

24.00 Agirren taldearekin dantzaldia.

Goizueta

Abuztuak 14, larunbata:

12.00 Itxaferoa Udaletxetik. Txistulariak, erraldoiak eta buruhandiak.

20.30 Umore Ona peñarekin kalejira.

22.30 Mikel Laboa, Xaximiku eta Sorotan Beleren kontzertua Argia aldizkariak antolatua.

01.00 Arkaitz taldearekin gau pasa.

Abuztuak 15, igandea:

07.00 Diana Tolosako dultzaineroe-kin.

08.00 Entzietarra.

10.30 Meza nagusia eta prozesioa.

12.00 Umore Ona dantza taldearen emanaldia.

12.30 Bonpa japoniarrak.

13.00 Eskuz banakako pilota partidua: Kárete-Lasa III. Artola-Apeztegiaren kontra.

18.00 Zezenak Udaletxe plazan.

20.00 Herri kirolak.

24.00 Adur taldearekin dantzaldia.

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Antzinako zaporea dute oraindik, denborak aurrera egiten duela ukatu nahi dutenen xarma. Sentimentalak direla diote, eta erdi mindurik erdi ironiko ikusten dute hondarrekoak direla, jendeak abandonatu dituela, us-tezko kalitateari eta publizitateari emanak, salduak. Deuse-tarako balio ez duten makinak gor-detzen dituzte sotoetan, eta euli-txoan kontrako kandelak, olioan piztu daitezkeen kartiozko pox-poloak, bakarrik aminek gogo-ratzen dituzten piperopilak, edota kakaoa, azukrea eta irina besterik ez duten txokolateak egiten dituzte oraindik, harro gainera. Bizitza osoan beraiekin aritutakoen desagertzea bizi dute, baina hor diraute, duela ehun urteko makinekin eta oroi-penekin, pozik. Soilik Iruñekoak zenbaturik 40 ziren 1850ean, 14 1958ean eta egun bakarra. Egi-teko txokolatearen usainean hazi eta hezi ziren, berarekin bizi, eta berarekin desagertu egingo dira.

Subiza enpresa da txokolatea egiteari eutsi diona, besteak go-zotegi, kandela saltzaile edo okindegi bilakatu baitira. Jose Subizak, Amaia kaleko 101-le-rean, lau langileekin, bera de-sagertu arte txokolatea egin egin-go dela dio, nahiz eta ondoan zi-tuen guztiek aspaldiak etsi zuten. Enpresa 1841ean eratu zen, Erron, eta 1958an Iruñean paratu zuten denda eta tailerra. Denbora guzti honetan txokolate berdina egiten duela dio harro Josek, ai-taren eskutik negozioa hartu zu-tenen azken anaia. «Kakaoa, azukrea eta irina, besterik ez. Hau baita benetako txokolate baka-rra».

KANDELAK, PASTAK ETA TXOKOLATEA Kandekak, pastak eta txokolatea lotuta egon dira betidanik, eta 'gozogintza klasi-koa' deitzen zioten. «Lehen lan-bide bakar batekin ez zegoen bi-zitzerik» azaldu du Joaquín Do-nezar izen bereko dendaren ja-beak, «eta neguan kandelak egi-ten ziren urte osorako, udako ten-peratura altuak saihesteko. Udan, batez ere, pastak egiten ziren, he-rriko festak zirela eta, eta urte osoan zehar txokolatea». Done-zar 1853an sortu zuen Aezkoatik etorritako Jose Otxoak, eta go-zodenda hutsa baino, askoren-dako bigarren etxea izan da Za-pateriakoa. «Egun makinak gor-detzen dituen gelan bazeuden zaldiendako tokiak, jendea zaldiz etortzen baitzen hiriburura, eta lur tratuak, ezkontzak eta arazo familiarak konpondu egin izan dira pareta hauen artean».

Joaquínen aitona erosi zuen negozioa, eta aitak, eta orain Joa-quinek berak jarraitu diote lanbi-deari. Iaz arte egin zen bertan txokolatea, baina azkenean etsi egin zuen, «izugarritzko penare-kin». «Ezin da marka handiekin lehian sartu, eta tresneriak ere ez zituen gaingituko, akaso, egungo




Donezar etxeak iaz arte egin zuen txokolatea.

JOXE LACALLE

Asko dira Subiza, Pedro Mayo, Donezar eta beste hainbat txokolate markaz gogoratuko direnak, baina gutxi dendetan aurkituko dutenak. Isil isilean, desagertu egin dira Nafarroako txokolategileak, eta egun soilik Subizak eusten dio pasa den mendean Iruñean usuena zen lanbide honi.

Kakaoa, azukrea eta irina



Jose Subiza, azken txokolategilea.

J.L.

osasun legeak. Gainera etxean txokolatea egiteko ohitura desa-gertu egin da, emateko, eskein-tzeko den guztia desagertu den bezala».


Amerikan jatorria duen janari honen erabilera eta egiteko mo-dua franko aldatu da urtetan zehar, baina benetako ospea iga-ro den mendearen akabera izan zuen, egiteko txokolatea toki orotan zabaltu zenean. Hain-beste, ezen familia batzuek beren

zen, eta ondoren ardo goxoa. Be-tekada izaten ohi zuten, 'bolao' bat —azukreaz eta zuringoaz egindako pasta antzeko bat— hartzen zen urtean urte. Ez a faltzeko txokolatea zen hura!».

Etxean egitekoarekin batera, jateko txokolateak ere egiten zi-ren, baina onartuena eta estima-tuena 'espainola' zen, irinaz egindakoa eta, jakina, egostekoa. Subizan, hain zuzen ere, hori besterik ez dute egin urte guzti hauetan, baina orain gasarrik ga-bekoa ere saltzen dute, kafetegi eta kontsumo handietarako.

Garai batzuetan izugarritzko kontsumoa izan arren garai onak aspaldian joan ziren. Txokolate eta kandelagileen ermandatea Iruñeko handienetakoa izan zen, eta egun, Joaquín da presidentea, kutzazaina eta kide bakarra. «Egun horretan, oraindik, denda itxi, 'Ermandatearen Festa' dioen kartela jarri, eta bazkalte-ra eramaten dut familia, bakarra bainaiz. Gure aitak esaten zuen: 'Ni gelditzen naizen bitartean, ermandateak iraungo du' eta ni-rekin gertatu da hori. Ermanda-terik ez dago, baina, legez, orain-dik badirau».

Orain txokolatea soilik etxe-rako egiten duela dio, bere kon-tsumorako, eta «behar bezalako» txokolatea edozein gozogile zo-rabiatzeko da: «Guayaquilgo kakaoaren % 40, Caracasko % 8, Guineako % 12 eta gainontzekoa azukrea, irinik gabe. Pertsona ba-koitzarendako ehun gramo in-guru, eta birrindu ondoren, esne-tan —behi-esnea baldin bada ur pixka batekin— egosi, hiru aldiz. Txurroak ongi eginak, txokola-teak zikindu bai baina ez da ber-tan gelditu behar».



Pedro Mayo lantegiko makinak.

J.L.

Pedro Mayo, Oviedora

A.B. / IRUÑEA

Egiteko txokolateaz, hau da, esnetan egosi eta beroa hartzen denaz hitz egitean, Nafarroan, Pedro Mayo aipatu behar. Etxe-rik ezagunena urtetan, gutxiak daki, egun, Oviedon egiten de-la, nahiz eta oraindik Iruñeko helbidea agertzen duen etiketa dotoreak. Berarekin batera joan zen Asturias aldera Orbea, izen handiko beste etxea, eta Iruñeko Cuatro Vientos ondoan zegoen lantegi zaharra gaur egun orain-dik irekita badago ere, bereak egin du dagoeneko, lur sailak as-paldian salduta. Esanguratsua benetan.

Pedro Mayo enpresa 1847an eratu zuen izen bereko iruindar animosoak. Egungo langileek, baina, ez dakite sobra lehengo urte haietaz, Subizan edo Done-zarren ez bezala, aspaldian eten baitzen familiaren katea. Eta hori sumatu egin da benetan produk-tuaren ibileran: batzuek fabrika-

zio tradizionalari eutsi egin diote, handinahieririk gabe, duela ehun urteko makinekin eta me-todo beretsuekin. Mayok eta Or-beak, ordea, haruntzago begiratu zuten, eta apostu gogorra egin izen handiko beste etxeekin or-poz orpoko lehian aritzeko. Lehendabizikoak kandela baten gisa akitu —edo akituko— dira, zalapartarik gabe, eta bigarrenak etxe handiaren baten eskuetan amaitu dira, ur handitan ibiltzeagatik arrain indartsuago baten ahoan bukatzen duenaren bezala.

«Pedro Mayoren ondorengoek ez zuten behar ziren inbertsioak egin bere garaian, eta urteen po-derioz sumatu egin da. Bestela, gaur egun, enpresa handia izanen zen». Jesus Maria Sanchez en-presaren hondarren administra-tzailea da, Oviedoko agintarien azken erabakiaren esperoan. Duela 15 bat urte, kakaoaren pre-

Donejakuera bidean

● Egun hauetan Errozabal jen-dez mukuru bete dugu, mon-tioka heldu baitira beilariak, berdin espainol nola frantxi-ment, zangoz, txirindulaz edo kotex, guziak bazter ikuska Donejakuerako bidea ezagutu beharrez. Badakizie Europako bidea, kulturarena, herrien ar-teko harremanak eta tar, tar...

Nafar Gobernuak lan txu-kuna egin du bide guzia seina-latuz, gal ez diten beilari gai-zoak; zemeit tokitan ostaturia kitorik, xana eta gatzte, aterpe eta bero (uda otza dae...) oro errextasun erromesendako.

Bitartean gu jende saldo honi so, daus egin gabe eta nago ez ote giren gaizki egiten ari. Bi-deari buruz leitzen dudana ba-koitzean, burura heldu zait gure aintzinekoen jokaera... eta ez zen, ez *Recuerdo de Ronces-valles* idatzia daraman zemeit ergelkeria saltzea.

Aymeric Picard frantxi-mentak (XII. mendea) konpa-razione, asto beltzarenak eta bi ikusi zituen hemendik barna heldu zelarik... nafarrak sos ba-tengatik frantsesa hiltzen zuela argi idatzi zuen.

Berantago Domenico Laffi italiarrari gauza bera agitu zi-tzaion. Zubiri iragarerakoan sekulako zubisari ordaindu behar izan zuen eta ondorean, zubi zainzailen itxuraz arrankuraturik, ihesari eman zakon fite baino fitexkago. La-rasoainaraino korrika baratu gabe (5 km). Haren ustez zubi-ko soldaduei «...hobe erranik, ebaste eta hiltzaileak... kasu egin behar zaie... bertzenaz bu-ruak makilkadaz hausten di-tuzte eta agian bizia ekendu ere, ugaldea hilerriatza emanez...».

Donejakuera heldu omen zen gure Domenico, bai-na zerbeit gostarik duikabe. Auzperrik herri aberatsaren fama dauka Erroibar eta Aez-koan eta jende nagusiaren ele-

tan garbi ageri da zeri zor dako-ten aberastasun hori: bideari, hobeki erranik beilariet ebati-takoari. Eta ez dut hau Auzpe-rrikoan laiotan erraten, hain laudoriotan beizik.

Naela harira. Adixkideen ar-tean Xacobeoari buruz solasa izan dugu. Guk ere ospatu beharko gindu-keelakoan gau-de, baina tradi-zioa errespetatuz. Funtsean zemeit talde eratu nahi dugu erromesak ol-dartzeko; bide bazterretan emanik (Ibañetako oihana, Mezkitz gaina, Errokoa, Zu-riaingo ateka...) ebatsiko daie-gu ahal den guzia eta jo (oi bai!), bortizki jo... zeren ezin asmatu duize zer nolako erro-mes pitok heldu zaizkigun, ha-rrakeriak puzturik, oro xaki-duria eta exigentzia, bidearen nagusiak bailiran... eta, ber-talde, Orreagako apezzen eginkizunetarikoa bat erome-sak ospitalean artatzea da, as-paldian egiten ez duten zer-beit. Baten bat ere akatzen ahal dugu... ustekabeen; hezurtegi ederra bada Orreagan, propio hortako egina.

Hasieran jantzi-egokiak (abarkak, bizkar-larruak, baz-terrekoak...) aurkitzeko zemeit gastu izanen dugun, suben-tzio bat eskatzekotan gaude na-far eta Galizako Xuntari; xu-mea zeren lanari ekin ondorean segur moldatuko girela.

Hola guziak pozik: egungo beilariak ikusi eta sentituko du-te zer zen bidea egitea eta gure herri doakabeak sos batzu atra-ko dituzte. Hontaz landa bi-daiariak zer basa giren oino ere idatzen segi dezakete, guga-dik ez dute bertzerik espero eta.

Gaizo gu! ez gira ausartu-ko...! Agur eta ohore gure ain-tzinaioei.

Xamar

zioaren igoerak eta kanpoko marken konpetentziak gogor as-tindu zuen Nafarroako industria, eta lantegi gehienak orduan de-sagertu ziren. Pedro Mayo eta Orbea, indartsuenak, batu egin ziren, baina azkenean Chocolates

Iruñeko lantegian soilik espor-taziorako txokolateak eta estal-kiak gelditu ziren. Hondarrak.

Duela urtebete, ordea, enpresa errentagarria ez zela esan zieten, eta makinaria hara eramana. Or-duan hasi zen 15 langile hauen sufrikarioa. Zenbait alternatiba aztertu ondoren, lur sailak aspal-dianik salduta zeudela jakin izan zuten, eta maiatzatik esku hutsik dabilza, lanik gabe. «Oviedora joatea proposatu zi-guten» azaltzen du Pili Goldara-zena langileen batzordekoak. «Baina Nafarroako Gobernuak ezetsi egin zuen espeditatza, ez baitzen batere sendoa». Beste erantzunaren esperoan, gelditzen diren makinak armiarmen sareek estaltzen hasiak dira, eta apenas aditu daiteke pilatuta dauden txo-kolateen usaina. Langileen ar-tean, Oviedoko enpresaren ha-sierako asmoa Iruñeko lantegia deuseztatzea zeneko ustea dago. «Ezan ziguten hemengo ma-kinaria oso zaharra zela, eta hara eramana zuten erabiltzeko...».

Asturianos Oviedoko enpresak erosi zituen. Bertara eramán ziren txokolateen fabrikazioa, eta

Gazteendako Zokoa



Nafarroako Taldetako txapelketaren 9. jardunaldiko partida, 1992ko abenduaren 12an jokatu.

Roberto Sola (Tuterako Santa Ana) Iñaki Sagasetaren (Atarrabiako Paz de Ziganda ikastolako) aurka.

1. e4,c5; 2.Zf3,Zc6; 3.d4,d4; 4.Zd4, Zf6; 5.Zc3, d6; 6.Ae2, e6; 7.Ae3, Ae7; 8.0-0,0-0; 9.Eh1, a6; 10.a4, Zd4; 11.Ad4, b6; 12.f4, Ab7; 13.Af3, Gc8; 14.Dd3, Zd7; 15.aG-d1, Dc7; 16.Ae2,fG-d8; 17.Dg3, Af6; 18.Af6,Zf6; 19. Ad3, Zd7; 20.f5, f5; 21.Gf5, Ze5; 22.dG-f1, Ge8; 23.h4, Ge6; 24. Gf6, De7; 25. Ge6, De6; 26. Gf4, Dh6; 27.Eg1, Gc5; 28. Ae2.

'Df2' egokiagoa da.

28....Zg6; 29.Gf1. Ikus koa droa.

29...., Zh4.

Oso huts larria da hau, hurrengo jokaldietarako kalkuloak gaizki eginak daudelako. Hobe: 29....,Dh4; 30.Dd6,Ae4; 31.Ze4, De4; 32. Db6, Dc2. Peoiko abantaila mantenduko zuen.

30.Gd1,Gg5; 31.Dd6,Gg2 xa; 32. Ef1, Dd6; 33.Gd6,Ef8; 34. Gb6, Ae4.

Ustekabean, alfila harrapatuta geratu da. Partida erabakita dago.

35.Ze4,Gg6; 36.Gg6,Zg6; 37. Aa6, h5; 38. Ad3, Ze5; 39.a5,f5; 40. Zc5, g6; 41. a6, Zc6; 42. Ab5, Za7; 43. Ad3, Ee7; 44. Ee2, Ef6; 45.b4. Beltzek burua makurtu zuten.

Sekretu krudela

MAIDER ESEBERRI

Urrunean ikusten da etxea. Hain haundia, bere keinu goriarrarekin eta bere dorronekin zerurantz seinalatzen dutelarik hau atzemateko desioarekin. Aurrekaldea, harrizko bloke handi batzuk goroldio baso baten azpian izkutaturik, hor dago, geldi baina aiduru.

Landareek behatzen zaituzte beraien mila begi itsuekin. Zer izkutatuko du bere baitan harri masa honek? Neurrigabeko ateak, landutako egurrez egina, bere barrua ixten du, bere egia. Konturatu zara etxe honen gorakeriak jakinnahi desinteresatu bati aurre eman diola. Zergatik? Etxea konturatu da bertan sartuko zarela. Bere sekretua aurkituko duzu eta badirudi horrek ikaratzeko duela. Zer da? Atea

zeharkatzen duzu eta zure begien aurrean ondo apainduriko atalondo bat agertzen da. Tapiz sakratu bat, urrezko argimutirik aintzinako eta garesti diren altzairuen gainean, lanpara astun bat zintzilak eta makina bat koa-drok zure arreta pizten dute.

—Sarjentu, berandu gatzela susmatzen dut.

Detektibea, gortina lodi batez apainduta dagoen ate ireki batera hurbiltzen da. Gelaren barrurantz seinalatzen du eta bere begiek, finkorik puntu batean, sentimendu arraro bat adierazten dute. Sarjentua hurbiltzen da eta... bai, hor dago.

Odolezko putzu bat marmolezko lurraren gainean. Argiak, leiho haundi batetik sartzen delarik, eszena guztia argitzen du argitasun haundiz.

Sorbaldan sastada batek, biri-

ka zeharkatzen eta bihotzeraino iristen denak, heriotz bat iragartzen du. Bai, berandu iritsi dira. Gelan beste hilotz bat aurkitu dute. Aurpegi zuriko gazte bat. Bere ondoan pote txiki bat dago eta bertan artseniko hautsak ikus zitezkeen, buruhiltzea iragartzen. Maitasunak zeregin txarrak egiten ditu. Detektibeak eta sarjentuak elkarri begiratu diote ikaraturik. Inoiz ez zuten pentsatu gaztea hori egitera iritsiko zenik.

Behin komisaldegian egon eta gero kasua artxibatu zen galdutzat emanez. Ez ziren behar zen garaian iritsi. Gaztea desesperaturik, bere maiteak ukatzeagatik, beste pertsona batengan sentitzen zuen lehentasunagatik, bere bizitzarekin eta neskarenarekin bukatzea erabaki zuen.

Etxeak sekretu krudel bat gordetzen zuen.



Urbi ugaldea

A meskoan hiru astez ibili ondoren Iruñerria itzuliko gara berriz ere. Uhartera, hain zuzen, eta, gainera, hiru astez ere. Uharteko toponimia bizia jadanik argitaratua dago Nafarroako Gobernua eta trabajos Catastrales S.A.aren eskutik baina Uharteko toki-izen franko kanpoan gelditu ziren bizirik ez egoteagatik. Haatik, sarri, horiek ere izanen ditugu esku-artean. Uharteko festetarako, irailean, kaleratuko baita *Toponimia Huartearra* izeneko lana.

Aurreneko bi artikulutan uhar-tearrei min handia ematen dien bi izenen erabileraz arituko naiz. Hirugarrenean Uharteko mendiaren izenez idatziko dut, *Miravalles* izeneko oihanaz beraz. Goraxeago aipatutako bi toki-izenak honako hauek dira: *Urbi ugaldea* eta *Olatz Txipi*. Lehendabizikoa uhar-tearrek ez beste inork erabiltzen ez delako eta bigarrena oso gaizki erabiltzen ari delako.

El Agua en Navarra izeneko liburuari esker badakigu Iruñerri eta Agoitz-Irunberri eskualdearen arteko mugan sortzen dela eta 12 kilometro kurritu ondoren Uhartan Argarekin batzen dela Urbizkain eta Miravallesen arteko harratean. Errekak bago artean dauka iturria eta bere ur-bazterretan txipu, lizar, zugar eta saratek itzalpean gordezen dute ura. Argara bildu baino lehentxeago haltzak azaltzen dira, agian *Altzuza* izenaren berri ematen digutenak.

Liburuak ematen duen informazioa ezin zehatzagoa bada ere, huts larri batek iluntzen du. *Rio Egües* izena ibiltzen dutelako beti, Nafarroako plano guziek erabiltzen duten izen berbera.

Uraren izenaren arazoa jorratu genuenean urak izenik ez zuela esan nuen. Baina, jakina, betiko salbuespenak ez ditugu ahaztu behar. Gutxi dira, hala ere, izen orijinalako ugaldeak. Ezagunak: *Bidasoa*, *Eska*, *Cidacos*... Gehienetan paraje baten izena (edo haranaren izena) hartzen dute edo gainetik inposatutako izenen bat jasan behar dute: *Mediano* ibaia, agian, adibiderik higuinarrria litzateke.

Gurera bueltatuz esan dezagun Uhartan badirela *Urbi* izeneko parajea eta *Urbizkain* izeneko muinoa. Bigarrena *Urbiz* osatzen da *Urbi+bizkain* eta hapologiaz *Urbizkai* ahoskatua. *Urbi* berriz *bi+ur*, hots, *bi ibai* bide da, gure erreka eta Arga hor biltzen direla erakutsiaz. Baina zein da lehenago tokia ala ura? Tokia, ezpairik gabe, nahiz eta Elkanon *Urbi* izeneko lekua izan. Elkanoko leku horretan ere bi ur biltzen dira.

Rio Egües izena bulegoan sortutako izenetarikoa da. Eguesibar eta Uhartan arrotza da. Uhar-tearrek ez mintzeko, *Urbi* esan beharko genuke.

MIKEL BELASKO

Jenero Xumekoak

Txistulari baten gogoeta ixila

Musika dut ogibide. Arteetan irristakorrena. Kalibratutako haizez eginikoa. Ukitu ez daitekeena. Atomo hutsa funtsean. Uhin argi bizia bestalde. Eta hirekin, Martzelina, hirekin ezta do triste bat ere. Hau egin ezina.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

KONTRAPASA

Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Beheko taula osatu ondoren Baztanen bilduriko erranairu zahar bat ageriko zaizu.

1. Infusio-edaria
2. Airoso
3. Lilia
4. Gurpil gabeko orgak
5. Zango

A	10	B	2	D	5	D	1	A	4
B	1	D	3	B	9	A	8	A	6
B	6	A	2	D	2	D	6	A	9
A	3	D	4	D	7	B	7	A	5
B	4	D	8	A	1	B	8	B	5

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
A									
B									
D									

Bizi Bizian

Aisia eta literatura bat eginik, benetako liburutegi bihurtu dira udan Nafarroako zenbait igerileku. Eguzkia hartu bitartean liburu bat irakurri, komikiak eta

ipuinak trukatu eta, hainbat tokitan, mota guztietako argibideak jaso ahal dituzte Nafarroako haur eta gazte guztiak.

Liburu baten itzalean

EDURNE ELIZONDO / IRUÑEA

Ekaina ailegatuta ikastetxe guztiek beraien ateak itxi eta irailerako zer edo zer utzi dutenek ezik, haur guztiek boligrafo eta koadernoak etxeko azken txokoan gorde, eta eguzkiaz gozatzeko asmoz, kaleak, zelaia eta igerilekuak bete egiten dituzte. Urtean zehar liburu artean egon ondoren ezer baino lehen igerilekua nahiago dute eta herri guztietako liburutegiak inoiz baino isilago geratzen dira. Egoera honi konponbidea emateko asmoz Nafarroako Gobernuak antolamenduaren barnean dauden liburutegiek, udal zerbitzuen laguntzaz, 'Liburu baten itzalean' deituriko kanpaina jarri dute martxan. Uztaileko bigarren hamabostaldian hasita liburuak apaletatik atera eta haurrak dauden lekura, igerilekuetara eraman dituzte, eguzkiaz gain, liburu baten itzalaz ere goza dezaten.

Ez da, ez, ekintza hau burutzen den lehen aldia eta iaz ere Nafarroako hainbat herritako igerilekuak irakurtzeko leku aproposa bihurtu ziren. Kanpaina honen ideia Korellak izan zuen. Udal liburutegia hutsik geratzen zenez bertako arduradunek liburuak igerilekura, eramatea pentsatu zuten bertan irakurtzeko. Aurten Korellarekin batera Zentroniko, Andosilla, Argetas, Azagra, Buñuel, Kaparroso, Kastejon, Funes, Lekunberri, Leiza, Mendikute, Urantzia, Milagro, Lodosa, Murtxante, Ribaforada, Tafalla, Atarrabia eta Zizur izan dira ekintza honen lekuko eta izandako arrakasta ikusi ondoren datorren urtean errepikatzeko prest daude. Proiektu honen helburu nagusia liburuak zaleak suspertzea da, eta era berean, ikasturtean zehar liburutegiaren bazkideen kopurua gehitzea. Honela, haurrengan irakurtzeko grina piztu eta indarberritzea lortu nahi dute. Ikasturtean zehar haurrek liburuak betebeharrak bezala ikusten dituzte; horregatik, betebeharrak baino, lagun bezala ikusi ditzaten, liburuak igerilekuetara hurbilduz hauen eta haurren arteko harremanak sendotzea dute helburu ekintza berri honen antolatzaileek.

Eta, iaz bezala aurten ere, haurrek liburuak merezi duten harrera eman diete, eguzkia eta uran murgiltzeaz gain,

liburu orrien artean ere murgilduz.

Zizur herrian ez dute ekintza honekin nahikoa izan eta joan den abuztuaren 2an hasita 13ra bitartean martxan jarri dute 'Liburu txokoa' deituriko kanpaina. Ekitaldi hau Zizurko Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatu du eta «haurren artean euskara bultzatzea du helburutzat», zerbitzu honetako arduradunak adierazi duenez. Udal liburutegiaren laguntzaz liburuak igerilekura hurbiltzeaz gain, euskarazko liburu, ipuin eta komikien trukaketa lor-

tu nahi dute haurren artean. Etxetik irakurritak dituen liburuak eraman eta haur bakoitzak liburu berri bat lortzen saiatzen da. Liburuaren bitartez haurrek udan bizi duten giro

erdalduna, bai kalean eta bai etxean ere, euskal giro bihurtu nahi dute kanpaina honen arduradunek. Iaz ere martxan egon zen ekintza hau eta aurtengo arrakasta kontuan hartuz datorren urtean ere egongo da, seguruenik.

Txantrean ere kontuan hartu dute bertako Gaztebide-Gazteentzako Udal Zerbitzuko arduradunek uda partean haur eta gazte gehienak igerilekuan daudela, eta ohizko bulegoa utzi eta hara joan dira. Beraien helburua «haur eta gazteei mota guztietako argibideak eskaintzea» da, bertako langileak adierazi duenez. Abuztuaren 5ean jarri zen martxan lehen aldiz zerbitzu hau Txantreko igerilekuan eta ostegunero zabaltzen ditu bere ateak 11.00etan. Arrakasta ikusiz aurrera jarraitzeko prest daude eta printzipioz abuztua bitartean egiteko prestatu bazen ere, seguruenik iraila bitartean ere luzatuko da ekitaldi hau.



Oporrak baino gehiago

E. ELIZONDO / IRUÑEA

«Txantreko igerilekuan jarri dugun argibide-mahaiara hurbiltzen den jende gehienak ez gaitu ezagutzen eta ez daki ez non gauden ere», azaltzen du Gazteentzako Udal Zerbitzuan lan egiten duen Malu Ziordiak. Beraien bulegoa igerilekuan jarri dutenetik haur eta gazte asko hurbildu zaie mota guztietako informazio bila. Udalekuak, kanpamenduak eta bidaiak dira gehien interesatzen zaizkienak, azken finean udaz gozatzeko edozein aukeraren bila baitabil-tza haurrak. Baina hau ez da eskaintzen duten informazio bakarra; egunkarietan agertzen diren iragarki guztiak bildu eta ar-

gitara ematen dituzte lan bila dauden gazteek ikusi ditzaten. Gai honi buruz ere, INEMekin harremanetan daude, «hau baita gazteak gehien kezkatzen dituen arazoetarikoa bat». Intsumisioari buruzko informazioa eskaintzen dute, halaber, «gazteen artean gai honek daukan garrantzia kontuan hartzekoa baita».

Bekak, jolasak, edozein gaiari buruzko informazioa emateko prest dago zerbitzu hau eta honen bila joaten diren gehienak haur eta gazteak badira ere, adin guztietako jendeari eskainia dago. Malu Ziordiak erraten duenez, «askotan gurasoak hurbiltzen zaizkigu, uda hasi bezain pronto haurrekin zer egin ere ez dakite eta».

Fernando Mendibil

Intsumisoa

«Kartzelako giroa hobetu da gurekin»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Intsumiso gehienak kaleratu behar zituzteneko berria astelehenean zabaldu zen, Espainiako Justizia Ministerioak erabakitako aldaketaren arabera, baina irailerako espero zen erreforma indarrean jartzea. Ustekabea, ordea, Madriletik heldu zen intsumiso preso guztiak hirugarren gradura pasatzeko agindua, eta senideak eta lagunak kalean zituztela, asteartean atera ziren intsumiso guztiak: 23 hain zuzen ere. Neurri berria oraindik kartzelan sartu gabe baina dagoeneko epaituak dauden intsumisoei ere dagokie, eta beraz, hemendik aurrera epaitu eta zigortutako intsumisoei soilik lo egitera joan beharko dute kartzelara.

Fernando Mendibil izan zen asteartean atera zenetako bat. Bi hilabete eta hamabi egun zera matzan barruan, eta hirugarren gradua ematen zietela jakitean «izugarritzko poza» sentitu zuela azaldu du. «Teoriaz hiru hilabete beteta kalera ateratzen bazara ere, bi hilabete daramazunean eskatzen diote baimena Madrilgo zuzendaritzari, baina eskatzen dutenetik Madriletik erantzuten duten arte gutxienez hogeita hamar egun pasatzen dira». Hala ere izan dira gehiago eman dutenak, hala nola Pello Amillano, bost hilabete egon baitzen hirugarren gradua lortu arte.

EGUNKARIA.— Asteartean denok kalera atera behar zenutela esan zizuetenean, eta behin kalean egonda, zer izan zen burura etorri zitzaizun lehendabiziko gauza?

FERNANDO MENDIBIL.— Jakiterakoan, egin genuen lehen gauza elkar besarkatzea izan zen, izugarria izan baitzen. Denbora gehien generaman bostei deitu ziguten hasieran, eta gelak txukuntzeko esan ziguten, seguruenik Madriletik deituko zutela kalera-

tzeko agindua emateko. Hori funtzionari batek esan zigun, ez zegoela nahiko tokirik denentzako, eta gela batean sartuko gintuztela.

EGUNKARIA.— Intsumiso guztiak elkarrekin zeudeten?

MENDIBIL.— Ez, 19 zeuden dagoeneko hirugarren graduan, beste hiru zaharrekin zeuden, 25 urtetik gorakoak direlako, eta gu denak elkarrekin.

EGUNKARIA.— Zaharrekin, beste modulo batean zeudenekin harremanik ba al zenuten?

MENDIBIL.— Ez, bakarrik gimnasia joaten ginenean, kristal batetik ikusi eta hitz egiten genuen, gimnasioa haien pabilioian zegoelako. Baina orain, hirugarren gradua lortu ondoren elkarrekin gaude denak. 24 gaude barruan, eta denak komunikatuta dauden bi geletan, atea irekita.

EGUNKARIA.— Nola ikusi duzu kartzelaren barruko bizitza, espero zenuen bezalakoa, gogorragoa?

MENDIBIL.— Ez, espero nuena baino hobea. Ez da espetxe arrunt bat, batez ere gu ailegatu ondotik. Ni sartu nintzenean 18 ginen barruan, eta orduan... Adibidez lehendabiziko bi edo hiruak sartu zirenean nahiko arazo dextente izan zituzten barrukoekin: gauzak kendu zizkieten, ostikoren bat edo beste ere jaso... Baina gu 18 izatean, dena aldatu zen. Orain, ateratzerakoan, gurekin gelditu diren preso komunak oso jatorrak dira eta giroa erabat aldatu da. Pentsatzen dugu gero, denborarekin, berriro hasierako giroa nagusituko dela, baina...

EGUNKARIA.— Eta zuek zer moduzko harremana duzue haiekin?

MENDIBIL.— Oso ona, ia guztiekin. Patioan beti jolasten dugu beraiekin, eta hasieran ez zen horrela, bakarrik batzutan hitz egiten genuen eurenkin. Intsumisoak sartzerakoan hor zeuden laubapost, arazo fuerteenak zeuzkate-

steartean atera ziren Iruñeko kartzelatik barruan zeuden 23 intsumiso nafarrak, hirugarren gradua eskuratuta. Espainiako Justizia Ministerioak erabakita, berrak ustekabea harrapatu zituen

barrukoak, eta preso segitzen dutela gogorarazi badute ere, izugarritzko berri ona izan zen denendako. Mendibil gaztearen esanetan, barruko giroa hobetu egin da beraiek sartu zirenetik.



A. B.

nak zaharrekin bidali zituzten, eta giroa askoz hobea da orain.

EGUNKARIA.— Eta funtzionarioekin?

MENDIBIL.— 30 bat dira eta jatorrak lau, zerbait eskatuz gero mugitzen direnak. Normalean baina, ez dute ezer egiten zure alde, eta badira intsumisoei nahiko harreman txarrak dituzten batzuk, ez dakit zergatik, baina

hemengoak ez izateagatik edota 'fatxak' direlako.

EGUNKARIA.— Badakizue jende asko egon dela kartzelaren atean, kanpoan, egun guzti hauetan, beriziki gose greba egin zenutenean. Hori sumatzen da barrutik?

MENDIBIL.— Bai, batez ere gose greban. Jatera joatean zerbait desberdina egiten duzu, eta apurtzen duzu monotonia. Baina gose

Gu gogoz gaude gauzak egiteko, eta garbi azaldu nahi dugu hirugarren gradua lortzea ez dela ezerrez. Preso segitzen dugu».

greban geundenean, oso luzeak egiten zitzaizkigun egunak eta jendea goizeko zortzietan etortzen zen. Nire gelatik ikutzen eskutitzak... Izugarria zen benetan, eta beraiek badakite, esan diegulako. Bestela askoz gogorragoa izango zen.

EGUNKARIA.— Orain gauez bakarrik joaten zarete. Asko aldatzen da?

MENDIBIL.— Bakarrik egun bat izan gara eta izugarritzko giroa dago gure artean, jendea tabernetan, edo lagunekin ibili delako. Baina urtebete t'ardi egunero lo egitera joan ondoren, pentsatzen dut kokoteraino bukatuko dugula.

EGUNKARIA.— Baina uste duzue egun guztiak beteko dituzuela?

MENDIBIL.— Ez dut uste, eta horretarako mugitu beharra daukagu.

EGUNKARIA.— Pentsatu duzue planto egitea?

MENDIBIL.— Zerbait aipatu dugu, baina momentuz ez da ezer seriozki planteiatu. Akaso aurrerago...

Gu gogoz gaude ekin tzak egiteko, eta garbi azaldu nahi dugu hirugarren gradua lortzea ez dela ezer. Preso segitzen dugu, eta gauzak ez dira asko aldatu, soilik pertsonalki. Mugimenduak berdin segitzen du eta lanean jarraitu behar dugu. Hurrengo pausoa despenalizazioa izanen da. Arriskutsua da pentsatzea gu dagoeneko kalean gaude. Ez da egia.

NOSKIJATOR



© Zaldi Eroak